



JAKIUNDE

ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

PRENTSA OHARRA 2009 apirilaren 4an

Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, apirilaren 3an Donostian egindako ohiko osoko bilkuran Akademiako kide kopurua haztea onartu zuen, 2007ko urriaren 25ean sortu zenetik lehenengo aldiz.

Akademiko berriak hautatzeko, bertaratutako Jakiundeko kide guztien onespina egon zen eta aukeratutako akademikoen bikaintasuna, independentzia eta konpromiso etiko eta soziala kontuan izan ziren. Denak dohain handiekiko pertsonak dira, beraien espiritu kritikoagatik, sortzeko gaitasunagatik eta bakoitza bere jarduerak egiteko zorrotasunagatik nabarmendu izan dira. Era berean, denak prest daude beraien ezagutzak ekartzeko, Jakiunde goi-mailako eztabaidagune bihur dadin, bikaintasun zientifikoa eta artistikoa sustatuko dituen zentro gisa eta ezagutzaren gizarte aurreratuen berezko erronkak eta aukerak interpretatzeko, aztertzeko eta kontsultarako goi-organo gisa.

Lehenengo handitze honekin Jakiundek oreka handiagoa lortu nahi izan du jakintzako diziplinen artean, eta bereziki azpimarratu du Akademiarako hautatutako kideen artean gizarteko alorretako ordezkariak egoteko nahia. Jakiunde ohartzen da gizarteak, oro har, eta unibertsitate inguruak, bereziki, potentzialitate handia dutela Akademiaren zeregina garatzeko eta etorkizuneko handitzeetarako.

Handitze honen ondorioz, Akademiako hautatutako osoko kide aukeratu dira: Nevadako Unibertsitateko (AEB) Center for Basque Studies-en sortzailea, William A. Douglas jn.; Ana María Echaide and., filologoa; Esther Ferrer and., artista plastikoa; José Antonio Garrido jn., ingeniaria; Jean Haritschelhar jn., filologo eta literatoa; Xabier Lete jn., poeta eta abeslaria; Maria del Carmen Mijangos and., kimikaria; Luis de Pablo jn., konposatzailea; José Ramón Recalde jn., jurista; Javier Retegui jn., ingeniari teknikoa eta Eusko Ikaskuntza presidente ohia; José María Setién jn., jurista eta teologoa eta Javier Tejada jn., fisikoa.

Jakiundeko kide dira, Pedro Miguel Etxenike fisikaria buru dela, berezko osoko kide gisa: Eusko Ikaskuntzako presidentea, Jose Mari Muñoa jn.; Unibertsitateetako aktiboko errektoreak: Juan Gimeno Ullastres jn. (UNED), Iñaki Goirizelaia jn. (UPV-EHU), Angel José Gómez Montoro jn. (Nafarroako Unibertsitatea), Jean Louis Gout jn. (Université de Pau et des Pays de l'Adour), Julio Lafuente Lopez jn. (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Jaime Oraá Oraá jn. (Deustuko Unibertsitatea) eta Iosu Zabala Iturralde jn. (Mondragon Unibertsitatea); eta hautatutako osoko kide gisa: Javier Aguirresarobe jn., Jesús Altuna jn., Montxo Armendáriz jn., Iciar Astiasarán and., José M^a Asua jn., Bernardo Atxaga jn.,

María Bayo and., Juan Colmenero jn., José Luis de la Cuesta jn., Javier Echeverria jn., M^a Carmen Gallastegui and., Juan José Goiriena jn., Félix Goñi jn., Gurutz Jáuregui jn., Maité Lafourcade and., Mariasun Landa and., José Antonio López de Castro jn., Jon Marcaide jn., Rafael Moneo jn., Gregorio Monreal jn., Inma Shara and., Jesus M. Ugalde jn., Juan Uriagereka jn., Enrique Zuazua jn..

Bihar akademiaren web orri berria aktibatuko da: www.jakiunde.org

Harremana:

Jone Karres

jakiunde@eusko-ikaskuntza.org

tel: 943 310855